

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

HACIENDA Y POLÍTICA FINANCIERA

PRESIDENCIA, FUNCIÓN PÚBLICA, INTERIOR Y JUSTICIA

**CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES**

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

RELACIONES CIUDADANAS E INSTITUCIONALES

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

CULTURA, DEPORTE Y JUVENTUD

POLÍTICAS SOCIALES

DERECHOS SOCIALES

FOMENTO

DESARROLLO ECONÓMICO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

DESARROLLO RURAL, ADMINISTRACIÓN LOCAL, Y MEDIO AMBIENTE

## Domínguez eta Aranburu kontseilariak Osasun eta Ogasuneko lurralde arteko kontseiluetan parte hartu dute gaur

*Bilkurak Madrilén egin dira, eta Alonso eta Montoro ministroek parte hartu dute bertan, bai eta autonomia erkidegoetako ordezkariak ere*

Miércoles, 29 de julio de 2015

Osasuneko kontseilari Fernando Domínguezek Osasuneko Sistema Nazionaleko lurralde arteko kontseiluan parte hartu du gaur goizean, Madrilén. Kontseiluaren buru Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko ministro Alfonso Alonso izan da, eta bertan egon dira autonomia erkidegoetako Osasuneko arduradunak.



Erdian, Osasuneko kontseilari Fernando Domínguez, Alonso ministroarekin bilkura hasi aurreko une batean.

Dominguez kontseilariak adierazi duenez, programako akordioaren puntuetako bat Nafarroan "osasun unibertsala izatea da, pertsonaren izaera edozein izanik ere", eta hala babestuko duela Ministerioaren aurrean.

Gainera, bilkuran Nafarroak jadanik ezarrita zuen haurrentzako txertaketa-egutegia onartu da, eta barizelaren aurkako txertoa sartu da bertan. Gogora ekarri behar da Nafarroa autonomia erkidego bakarra dela, Ceuta eta Melillarekin batera, txerto hori haurren egutegian sartuta duena eta, 2007tik, bi dositan ematen da, 15 hilabetera eta haurrak bi-hiru urte dituenetan.

Halaber, kudeaketa klinikoko unitateak inplementatzeko errege-dekretuaren proiektu bati buruz hitz egin da; proiektu horrek medikuntzako jardueraren ohiko modua aldatu dezake profesional medikoei erantzukizun handiagoa emanez beren mediku- jardueretan

Bestalde, arratsalde honetan Politika Fiskal eta Finantzarioaren kontseilua egingo dela aurreikusten da. Bertan izango da Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilari Mikel Aranburu, Ogasun eta Administrazio Publikoetako ministro Cristobal Montoro buru dela. Bilkura horretan, 2016-2018rako defizit eta zorraren banakako helburuak jorratuko dira; horrekin batera, Ogasunak autonomia erkidegoei 2016rako finkatutako finantzakoa ez den gastu-mugaren berri emango die.

Aipatu behar da gai horiek araubide erkideko autonomia erkidegoei bakarrik eragiten dietela; beraz, Nafarroak ez du aurrez erabakitako jarrerarik. Jakina denez, Foru Komunitateak eta Estatuak aldebiko harremana dute era honetako gaiak adosteko, Politika Fiskal eta Finantzarioaren kontseiluko esparrutik kanpo beti.